

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

ENPLEGU, MERKATARITZA ETA TURISMO SUSTAPENAREN ETA FORU ADMINISTRAZIOAREN SAILA

527/2019 Foru Agindua, abenduaren 20koa, onesten duena agintzea artxiba dadila Mugikortasun eta Garraio Zerbitzuko Ikuskatzaitzako eta Baimenen Kudeaketako Atalaren buru lanpostua (kodea: 1017.001) berariazko norgehiagoka bidez betetzeko deialdiari buruzko espedientea

Maiatzaren 31ko 274/2019 Foru Aginduaren bidez, Mugikortasun eta Garraio Zerbitzuko Ikuskatzaitzako eta Baimenen Kudeaketako Atalaren buru lanpostua (kodea: 1017.001) berariazko norgehiagoka bidez betetzeko deialdia egin zen. Foru agindu hori 2019ko ekainaren 12an argitaratu zen ALHAOn (68. zk.), eta 2019ko ekainaren 19an EHAAn (115. zk.)

Batzar Nagusiak berri ostean, diputatu nagusiaren uztailaren 5eko 325/2019 Foru Dekretuaren bidez, Arabako Foru Aldundiaren sailak zehaztu ziren 2019-2023 legegintzaldirako.

Egitura foru dekretu horren edukira egokitu da eta, beraz, Foru Gobernu Kontseiluaren urriaren 22ko 47/2019 Foru Dekretuaren bidez, Bide Azpiegituren eta Mugikortasunaren Sailaren egitura organiko eta funtzional berria onetsi da. Dekretu horretan, ikus daiteke ez dagoela deialdiaren xede den lanpostua atxikitzen zaion atala.

Aldi berean, Foru Gobernu Kontseiluaren urriaren 22ko 656/2019 Erabakiaren bidez, aldatu egin da Arabako Foru Aldundiaren Administrazio Orokorreko funtzionarioentzat gordetako lanpostuen zerrenda; Ikuskatzaitzako eta Baimenen Kudeaketako Atalaren buruaren lanpostua amortizatu da.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak honako hau xedatzen du 21.1 artikuluan:

Administrazioa behartua dago ebazpen espresua eman eta jakinaraztera prozedura guztietan, edozein dela ere prozedura hasteko modua.

Preskripzioa, eskubideari uko egitea, prozedura irautitzea edo eskaeran atzera egitea gertatzen denean, eta orobat prozeduraren xedea gerora desagertzen denean, kasuan-kasuan gertatutakoa adieraztea izango da ebazpena, jazotako egitateak eta aplikatzekoak diren arauak zehaztuta (...)

Kasu honetan, Ikuskatzaitzako eta Baimenen Kudeaketako Atalaren buruaren lanpostua amortizatzeak berekin dakar deialdiaren xedea desagertzea, ezin baita bete ez dagoen lanposturik.

Beraz, hautaketa prozesua amaitutzat jo behar da, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 21.1 artikuluan ezarritakoaren arabera.

Diputatu nagusiaren uztailaren 5eko 324/2019 Foru Dekretuaren bidez, Arabako Foru Aldundiaren sailak zehaztu ziren, eta diputatu nagusiaren uztailaren 19ko 345/2019 Dekretuak aldatu egin zuen foru dekretu hori. Beste alde batetik, Diputatuen Kontseiluaren uztailaren 30eko 154/1993 Foru Dekretuaren bidez, funtzio publikoaren arloko eskumenak ezarri ziren, eta otsailaren 9ko 10/2016 Foru Dekretuaren bidez, funtzio publikoaren gaietan eskumena duen sailaren egitura organikoa eta funtzionala onetsi zen. Horietan guztietan ezarritakoarekin bat etorri, honako hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Agintzea artxiba dadila Mugikortasun eta Garraio Zerbitzuko Ikuskatzailtzako eta Baimenen Kudeaketako Atalaren buru lanpostua (1017.001 kodea) berariazko norgehiagoka bidez betetzeko deialdiari buruzko espedientea, prozeduraren xedea gerora galdu delako.

Bigarrena. Foru agindu hau jakinaraztea espedientean dauden interesdunei, eta agintzea ALHAOn argitara dadila.

Hirugarrena. Foru agindu honen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua jarri ahal izango da, argitaratzen den egunaren hurrengotik hasi eta bi hilabeteko epean, Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegian, edo nahi izanez gero, berraztertze errekurtsua, hilabeteko epean, ebazpen hori eman duen erakunde berean; hori guztia, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 46.1 artikuluan —Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 123. artikuluan xedatutakoarekin loturik— xedatutakoaren arabera.

Gasteiz, 2019ko abenduaren 20a

Bigarren diputatu nagusiordea eta Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Saileko foru diputatua
CRISTINA GONZÁLEZ CALVAR